BERRIZKO GAZTELEKUAREN DINAMIZAZIO, KOORDINAZIO ETA KUDEAKETA KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOEN PLEGUA

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2024-04-30 12:14:16(UTC) Fecha: 30/04/2024 12:14:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {659fa7eb-08a0-487a-9e5a-feb6a8efdbd5} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

AURKIBIDEA

1.-KONTRATUAREN HELBURUA **2**

1.1. Gaztelekuaren xedea 2

1.1.1. Zerbitzuaren hartzaileak 2

1.1.2. Zerbitzuaren helburu orokorrak 2

1.1.3. Zerbitzuaren helburu espezifikoak 3

2.- ZERBITZUAREN KUDEAKETA ETA METODOLOGIA **4**

2.1. Kontratistaren betekizun nagusiak 4

2.2. Kontratistaren betekizun espezifikoak 5

2.3. Kontratistaren eta udalaren arteko koordinazioa 6

2.4. Kontratistaren koordinazioa beste eragileekin 6

3.- GIZA BALIABIDEAK **6**

3.1. Pertsonalaren kontratazioa 7

4.- PROIEKTUAREN ETA JARDUEREN EZAUGARRIAK ETA BETEBEHARRAK **8**

5.- ZERBITZUAREN PREZIOA **8**

6.- ZERBITZUAREN JARRAIPENA ETA IRAUPENA **8**

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2024-04-30 12:14:16(UTC) Fecha: 30/04/2024 12:14:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {659fa7eb-08a0-487a-9e5a-feb6a8efdbd5} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Plegu honen helburua da Berrizko Udaleko “Gazteleku” zerbitzuaren ustiaketa esleitzeko lehiaketa deialdiaren oinarri teknikoak arautzea.

1.1. Gaztelekuaren xedea:

Nerabeen balio anitzeko zerbitzua dinamizatzea, koordinatzea eta kudeatzea.

1.1.1. Zerbitzuaren hartzaileak:

Zerbitzu hau Berrizko 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendurik egongo da. Profil guztietako nerabeen parte hartzea ahalbidetzen da; erabiltzaileak askotarikoak izan daitezen, ez bakarrik adinari dagokionez, baizik eta baita jatorriari, ikastetxeari, sexuari eta bestelako alderdiei dagokienez ere. Bertara joaten ez diren nerabeez ere arduratuko da. Horiek hurbiltzeko ahalegina egingo da. Edonola ere, modu arrazoituan justifikatuz gero, adin tartea handitu edo txikitu ahal izango da.

Hartzaileek eskubidea izango dute zerbitzua modu egokian eta eraginkorrean jasotzeko, eskainitako plan eta programaren gidalerroekin bat etorriz.

Jardueren hartzaileek beren eskura jarritako instalazio, ekipamendu eta materiala errespetatu eta honen erabilpen egokia egin beharko dute.

1.1.2. Zerbitzuaren helburu orokorrak:

Aurrez aipatu den moduan, nerabezaroan areagotu egiten da pertsonek propiotzat hartzen dituzten denbora eta guneak izateko premia. Nerabeentzako zerbitzuaren helburua da denbora eta gune horietarako eskaintza egonkorra egitea eta nerabezaroak dituen berezitasunei aurre egiteko laguntza eta erraztasunak ematea. Zehatzago esanda, helburu orokorrak honako hauek izango lirateke:

- Beraien nerabe-izaerak, ulertzen, onartzen eta kudeatzen laguntzea.

- Beren autonomia estimulatzea, autoestimua lantzea eta erantzun heldu eta arduratsuak izan ditzaten ahalbidetzea.

- Nerabe izateko modu desberdinak onartzeko modua erraztea eta elkarren artean bizikidetza dinamikak sortzea, desberdintasuna gizarte balio bihurtuz.

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2024-04-30 12:14:16(UTC) Fecha: 30/04/2024 12:14:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {659fa7eb-08a0-487a-9e5a-feb6a8efdbd5} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- Beraien denbora kudeatzeko proposamenak biltzea, aztertzea eta baloratzea.

- Aurrera eramandako jarduerak euskaraz garatzea eta euskararen erabilera nahiz euskal nortasuna eta kultura bultzatzea.

- Talde bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea besteak beste errespetua, kritika, tolerantzia eta enpatia bezalako baloreak landuz.

- Beraien inguruko errealitate hurbilari buruzko hausnarketa egitera, ezagutzera, ulertzera, errespetatzera eta nola aldatu pentsatzera bultzatzea.

- Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea eta jakin nahia piztea, gure gizartearen partaide aktiboak izan daitezen.

1.1.3. Zerbitzuaren helburu espezifikoak:

- Nerabe Berriztarrei erantzuteko eskaintza garatzea. Gaztelekua kuadrilla eta nerabe ezberdinen arteko topagune izatea sustatzea.

- Nerabeek trebeziak garatzea, haien adineko pertsonekin eztabaidatzeko, iritziak emateko, erabakiak hartzeko eta beraien buruak antolatzeko.
- Neska eta mutilen berdintasuna bermatzea zerbitzu guztian zehar.

- Nerabeek askatasunez hautaturiko zaletasunak aintzat hartzea, sormena lantzea eta ekimenak bultzatzea.

- Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatzea eta euskararen erabilera bermatzea eta sustatzea.

- Herriko azpiegitura nahiz gizarte egiturak ezagutarazi eta horietaz baliatzeko ohiturak sortzea. Berrizko nerabeen eta gazteen eta herriko taldeen arteko elkartrukea sustatzea.

-Ohitura osasungarriak sustatzea beren bizitzako arlo guztietan: afektibitatea, elikadura, kontsumoa, jarduera fisikoa...

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2024-04-30 12:14:16(UTC) Fecha: 30/04/2024 12:14:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (659fa7eb-08a0-487a-9e5a-feb6a8efdbd5) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

2.- ZERBITZUAREN KUDEAKETA ETA LAN METODOLOGIA

Zerbitzuaren kudeaketaren xedea goian aipaturiko helburuak lortzea izango da. Arreta emateko eta lanerako hizkuntza euskara izango da. Berrizko Udaleko Gaztelekua izango da Berrizko nerabeei arreta zuzena emateko leku nagusia, baina ez bakarra. Gaztelekua Arkaraz kaleko 2. zenbakian kokatua dagoen eraikin bat da eta honen ordutegia honako hau izango da:

- **Larunbatak 17:00etatik 21:00etara**
- **Igandeak 17:00etatik 20:00etara.**

Zerbitzua eten egingo da maiatzaren azken asteburuan eta urriaren lehengo asteburuan jarriko da berriz ere martxan. Zerbitzu honetan bi hezitzaile egongo dira arreta eskaintzen.

Gazteleku zerbitzua erabiltzeagatik ez da tarifarik ordaindu behar izango. Jardueretan parte hartzeko, oro har, ez zaie inolako ordainketa gehigarririk eskatuko parte hartzaileei. Hala ere, zenbait kasutan, kontratuaren kostu finkotik igotzen diren ez ohiko jarduerak antolatzen direnean (irteerak, …) tarifa bat kobratu ahal izango da, beti ere, Udalaren oniritziarekin.

2.1. Kontratistaren betekizun nagusiak:

- Diagnostiko bat egitea Berrizko gazteen kezkak, premiak eta nahiak ezagutzeko eta hauetan jorratzeko.

- Gazteekin batera programazioa diseinatzea eta garatzea eta Udaleko teknikariari honen berri ematea. Gaztelekuari buruzko informazioa zabaltzeko komunikazio kanal ezberdinak erabiltzea (sare sozialak, kartelak…)

- Gaztelekuko baliabide teknikoak eta materialak kudeatzea. Enpresaren ardura izango da ohiko eta ez ohiko jardueretarako behar diren materialak eskuratzea eta udalak utzitako material, altzari eta baliabideak zaintzea.
-Gazteekin batera, GAZTELEKUAren kudeaketa araudi bat egitea; jarrera desegokiak ekiditeko. Araudi horren berri emango zaie gazteei eta beraien familiei.

- Deialdiak egitea eta prestatzea. Batzarrak dinamizatzea, akta jaso eta gazte saileko arduradunari bidaltzea eta lan taldea dinamizatzea eta koordinatzea.

- Hilabetean behin saileko arduradunarekin biltzea, besteak beste jardueren jarraipena egiteko.

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2024-04-30 12:14:16(UTC) Fecha: 30/04/2024 12:14:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (659fa7eb-08a0-487a-9e5a-feb6a8efdbd5) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- Nerabeen gurasoekin komunikazioa eta harremana izatea; informazioa helarazteko eta dagokion kezka eta iradokizunak jasotzeko.

- Herri elkarteekin komunikazioa lantzea.

2.2. Kontratistaren betekizun espezifikoak:

- Hezkuntza zentroetara bisita gidatuak egitea. Herriko institutuarekin koordinatuta ikasleei Gaztelekuari buruzko informazioa modu eraginkorrean helarazteko moduak aztertzea.

- Ate irekien eguna prestatzea.

- Garatu beharreko programaren planifikazioa eta jardueren berri ematea udalean hilero. 15 egun aurretik planifikaturiko programaren aurreikuspena eta 15 egun ondoren egin denaren inguruko informea.

- Gaztelekuaren zabalkunde kanpainan parte hartzea.

- Nerabeei beraien intereseko gaien inguruko informazioa ematea. Horrekin batera, Udalaren beste zerbitzu eta jardueren berri eman eta baita prebentzio gaien eta euren inguruan beraientzat dagoen eskaintzaren inguruan ere.

- Ekintza ezberdinak antolatu (tailerrak, ikastaroak, irteerak…) eta beste eragile batzuek antolatutako ekintzetan parte hartu. (azaroak 25, martxoak 8, abenduak 3, KORRIKA, EUSKARALDI....)

- Ekintzen ebaluazio jarraia egin eta hauetan nerabeen ekarpenak jaso. Ebaluazioaren txostena garatu eta aurkeztu beharko da hilabetero. Txosten horrek erabiltzaileen balorazioa eta hobetzeko proposamenak ere jaso beharko ditu.

- Gastuen likidazioa aurkeztea.

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2024-04-30 12:14:16(UTC) Fecha: 30/04/2024 12:14:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {659fa7eb-08a0-487a-9e5a-feb6a8efdbd5} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

2.3. Kontratistaren eta udalaren arteko koordinazioa:

Gaztelekuaren arduraduna Berrizko Udala izango da, Euskara arloa, hain zuzen ere. Udalak nerabeekin lortu nahi diren, aldez aurretik finkaturiko helburuak betetzea bermatu beharko du. Horretarako etengabeko harremana izango du hezitzaileekin, behar berriak identifikatu eta horiei erantzuteko bideak aurkitu eta finkatzeko.

Enpresa esleipendunak gerta daitekeen arazo edo gorabehera aipagarri guztien berri eman behar dio Berrizko Udalari. Aldez aurretik aipatu den moduan, hilabetero bilerak antolatuko dira esleipendunaren eta Udaleko saileko arduradunaren artean. Harremana jarraia eta etengabea izango da mugikor eta korreo bidez.

2.4. Kontratistaren koordinazioa beste eragileekin:

Herriko beste zerbitzu, baliabide eta ekimenak kontuan hartu beharko dira. Horrek beste eragile batzuekin koordinatzea eskatuko du, eskaintza guztia osatua eta koherentea izan dadin. Eragile hauek besteak beste ikastetxeak eta gurasoak izango dira. Horien bitartez ikastetxeek egiten duten eskaintzaren berri jakingo da, ikastetxeko instalazioetan Gaztelekuko ekintzen inguruko informazioa eman eta jarri ahalko da…

3.- GIZA BALIABIDEAK

Zerbitzuak era egokian eskaini ahal izateko esleipendunak lantalde bat izango du. Lantaldearen curriculum akademikoa eta profesionala egokia izan beharko da agiri honetan jasotzen diren zerbitzuen beharrizanak estaltzeko.

Gaztelekuko zerbitzua aurrera eramateko gutxienez koordinatzaile bat egongo da eta hau izango da uneoro Berrizko Udalarekin harremanetan egongo dena. Honekin batera, hezitzaile 2 hezitzaile (txandaka) eta zenbait kasutan, biak (errefortzu gisa) egongo dela aurreikusten da .

Enpresa esleipendunak egiaztatu beharko du kontratataturiko pertsonalak honako baldintza hauek betetzen dituela:

- Begirale izateko gaitasun tekniko-profesionala: dinamizazio soziokulturalean edota gizarte-hezkuntza sozialean formazio espezializatua jaso izana; agirien bidez egiaztatu daitekeena. Garrantzitsua da hezitzaile-begiraleek gazteen parte-hartze prozesuetan eta dinamizazioan formazioa edo eskarmentua

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2024-04-30 12:14:16(UTC) Fecha: 30/04/2024 12:14:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (659fa7eb-08a0-487a-9e5a-feb6a8efdbd5) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

izatea eta hori egiaztatu ahal izatea. Begiraleen jarrera funtsezkoa da, besteak beste: gogoa, gaiarekiko motibazioa eta gazteengana hurbildu eta harremanak saretzeko gaitasuna izatea. Horrez gain, haiengana hurbildu eta euren konfiantza lortzeko komenigarria da adinez gazteak izatea.

- Lanean arituko diren pertsona guztiek C1 maila egiaztatu beharko dute euskararen ezagutzari dagokionean edo horren baliokidea den titulu ofizialen bat izan. Agiri bidez egiaztatzen ez duten hezitzaileei maila-proba egingo die Udalak. Hizkuntza gaitasuna egiaztatua duen langile bat ordezkatu behar izanez gero, adierazitako hizkuntza gaitasuna izan beharko du ordezkoak ere. Enpresa esleipendunari dagokio baldintza hori betetzen dela bermatzea. Langile berri guztiekin ere modu berean beteko da baldintza hori. Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematean, Berrizko Udaleko Euskara Sailak hizkuntza jarduera arautzeko duen erabilera planaren arabera jardungo du. Beraz, Udalak euskara duenez lan tresna, enpresak sailarekin dituen ahozko eta idatzizko harremanak ere euskaraz izango dira, eta enpresa esleipendunak hori betetzen dela bermatu beharko du.

Enpresa esleipendunak zerbitzua ematean herritarren eskura jartzen dituen dokumentuak, txartelak, oharrak eta gainerako idatziak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira eta horretarako, Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzaz baliatu ahal izango da. Hizkuntza betekizunak modu jarraituan ez betetzea nahikoa arrazoi izango da kontratua azkentzeko.

- Antzeko lanetan izandako esperientzia ere baloratuko da eta baita gaiarekin lotutako formazio ikastaroak izatea ere.

Enpresa esleipendunak zerbitzuetako langileen titulazioak helaraziko dizkio Udalari kontratua sinatzeko garaian, baita langileen edozein ordezkapen egiten duen momentuan ere, ordezkoek goian zehaztutako ezaugarriak betetzen dituztela egiaztatzeko. Enpresa esleipendunak hurrengo egunetik aurrera ordezkatuko ditu zerbitzuetako langileen baja, norberaren gaietarako baimenak eta antzerakoak, zerbitzuan beti beharrezko giza baliabideak egon daitezen.

3.1. Pertsonalaren kontratazioa:

Kontratatutako langileek laneko legeriak eta indarrean dagoen gizarte segurantzak eskatzen dituzten baldintzak bete beharko dituzte eta era horretan Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Eskuhartze hitzarmenak jasotzen dituzten soldatak ziurtatu beharko dira. **Guk oinarritzat hartu dugu Bizkaiko esku-hartze sozialaren sektoreko V. Hitzarmen kolektiboa (2017-2021).**
Udalak, egoki baderitzo, TC-2 agirien kopia bat eskatu ahal izango dio esleipendunari; horiez gain, dagozkien ordainagiriak eta langileen nominen kopiak eskatu ahal izango dizkio.

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2024-04-30 12:14:16(UTC) Fecha: 30/04/2024 12:14:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (659fa7eb-08a0-487a-9e5a-feb6a8efdbd5) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Halaber, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Gaztelekuko zerbitzuarekin hasi baino lehen, kontratatutako langile guztien delitugile sexualen erregistro nagusiaren ziurtagiri negatiboak aurkeztu beharko ditu erakunde adjudikaziodunak.

4.- PROIEKTUAREN ETA JARDUEREN EZAUGARRIAK ETA BETEBEHARRAK

- Proiektuaren proposamen ekonomikoa: **55 puntura arte**. Puntuaziorik handiena ekonomikoena den prezioari emango zaio.

- Proiektuaren proposamen teknikoa: **Gehienez 45 puntu**. Aurkeztutako azalpen memoria edo oinarrizko plana aztertuko da. Honela baloratuko da:

- Programa (helburuak, edukiak, metodologia, jardueren programazioa). (Gehienez 20 puntu)
- Koordinazioa; udalarekin eta kanpo eragileekin nahiz barne koordinazioa, koordinatzaile eta hezitzaileen artean. Komunikazio plana. (Gehienez 5 puntu)
- Genero ikuspegiaren eta euskararen erabilera sustatzeko metodologia eta deskribapen espezifikoa. (Gehienez 10 puntu)
- Zerbitzuaren jarraipena eta ebaluazio mota. (Gehienez 8 puntu)
- Hobekuntza osagarriak. (Gehienez 2 puntu)

5.- ZERBITZUAREN PREZIOA

2024rako gehieneko lizitazio-tipoa, BEZ barne, 8916,33 € izango da, 2025erako 23.776,88 € BEZ barne eta 2026rako 14.860,55 € BEZ barne. Hortaz, kontratuaren guztirako balioa 2026ko maiatzaren bukaera arte honako hau da: 47.553,76 BEZ barne.

Esku-hartze sozialaren sektoreko V. Hitzarmenean kolektiboaren (2017-2021) arabera, orduko prezioa 15€-koa izango litzateke (igande gehigarria barne).
Eta zenbateko osoan, erabiliko den materialaren gastuak sartzen dira. Instalazioaren mantenu eta garbiketa lanak eta argi indar eta berogailuaren gastuak ez dira prezioan sartzen. Horiek Udalak ordainduko ditu.

6.- ZERBITZUAREN JARRAIPENA ETA IRAUPENA

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2024-04-30 12:14:16(UTC) Fecha: 30/04/2024 12:14:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (659fa7eb-08a0-487a-9e5a-feb6a8efdbd5) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Udalak ahalmena izango du zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak nahiz emakidari erantsitako eraikin finkoen egoera ikuskatzeko eta esleipendunaren betebeharrak eta funtzioak egiaztatzeko.

Kontratuaren iraupena 16 hilabetekoa izango da, 2024ko urrian hasi eta 2026ko maiatzean amaituko da, gehi 8 hilabeteko luzapena izateko aukerarekin bi parteak ados egonez gero.

Berrizen, 2024ko maiatzean

Euskara teknikaria

Sinatzaile / Firmante: BERRIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BERRIZ Data: 2024-04-30 12:14:16(UTC) Fecha: 30/04/2024 12:14:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {659fa7eb-08a0-487a-9e5a-feb6a8efdbd5} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.